

ERENTSUKO GOTORLEKUA

Zer da Erentsuko gotorlekua?

Erentsuko gotorlekuak Ibardingo lepoko gainaldearen eremurik gorena hartzen du, ipar-ekialdean.

Gotorlekua osatzen dute:

- Iparraldean, 54 X 43 metroko plataforma laukizuzen batek.
- Hegoaldean, hiru dorrek.

Sartzea hegoaldean da, erdiko dorrearen mendebaldean. Barnealdean gutxi gorabehera 1,10 m-ko zabalerako harresi bat dago, harrizko lauzaz estalia. Multzo osoaren inguruan zulo bat bada, zabalera ezberdina duena (9-10 m) eta, gune batzuetan, 3 m-ko sakonera duena. Barnean, eraikuntza zaharrago baten oinarriak ikus daitezke, laukizuzen forma zuen, eta seguruenik, kaserna gisa baliatua zen. Hegoaldean, zulo hertsu eta aski sakon bat egin zuten, muinoaren alde batean. Mendebalderuntz, beste zulo bat agertzen da progresiboki sakontzen eta zabaltzen dena hegoaldean sarrera hertsu bat osatzeko gisan. Gisa horretan, gotorleku aitzinean, atari moduko bat zegoen, 50-60 metroko zabalerakoa.

Gotorleku honek hainbat izen hartu ditu: Commissari, Ibardin, Intzola, Erentsu. 1793ko maiatzaren 2an Espainiak hartu zuen eta 1794ko uztailan Frantziak berreskuratu.

Ez dakigu zehazki zer gertatu zen 1813ko urriko aliatuen ofentsiban, baina badirudi Frantziak gotorleku hau galdu zuela, Luis XIV eta Baionetako gotorlekuak galdu zituen bezala.


(Gaudeul jeneralaren arabera).

Artxiboetako dokumentu batetik erauzia:

Miller jeneralak, Mendebaldeko Pirinioetako armadaren buruak, Salbamen Publikorako Batzordeari idatzitako gutuna, II. Urteko Thermidor hilabeteko 7.ean gertatuak (1794ko uztailaren 30ean).

«7an, egun hastapenean, Laborde dibisio-jeneralaren tropek Donibane Lohizunen kokatua zen Espainiar kanpamendua erasotu zuten, baita arrokako, Marie Louise-ko eta Erentsuko gotorlekuak ere. Espainiar armadak, arinki iharduki ondotik, Erentsuko gotorlekura igorri zituen bere kide guziak. Erentsuko gotorlekua garaiezina iruditzen zitzaien, bertan baitziren, gainera, beren granadari onenak. Frantsesak tematsu egon dira erresistentziaren parean. Gerra musika batek lagundurik eta urrats sendoz, bideetan gaindi ibili dira, harresiak suntsitu eta gainditu, eta Frantziako bandera ezarri dute mendi gainean, errepublikaren aldeko oihuen artean. Gotorlekua defendatzen zutenak hilak edo preso dira. Bi obus, bederatzi kanoi pieza, fusil anitz eta kanpamendu osoa gureak dira orain...»

Erentsuko gotorlekua 1938an



Erentsuko gotorlekua gaur egun

